


2008an atxilotutako en ia erdia 30 urtetik beherakoa da

Atxiloteta kopuruak gora egin du hala Euskadin oro har nola 15 eta 29 urte bitarteko en kolektiboan.

Atxilotu gazteen artean gehien ikusten den soslai a hau da: mutila, 20 eta 29 urte bitartekoa eta ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituagatik atxilotua.

2008an 9.872 atxiloteta egon dira Euskadin. Atxiloteta guztien %45,3 15 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkie.

Atxiloteta kopurua igo egin da hala biztanleria orokorrean nola 15 eta 29 urte bitarteko en artean, baina gorakada honek bilakaera desberdina izan du bi taldeetan. 1996tik 2001era kasuak urritu egin ziren; 2001etik 2006rako tartean, ordea, biztanleria osoan atxiloteta kopurua handitu zen eta biztanle gazteen artean txikitu. Azkeneko bi urteetan kasu kopuruaren igoera %19koa izan da bai Euskadiko biztanleria osoan bai gazteen kohortean.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Salla eta bertan egina

15 eta 29 urte bitarteko gazteak


Generoaren araberrako azterketak aditzera ematen du 2008an Euskadin burututako gazteen 4.471 atxilotetatik %90,7 mutilenak izan zirela.

Adin-taldeei dagokienez, atxiloturiko gazte gehienak 20 eta 29 urte bitartekoak dira (%74).

2008an atxiloturiko gazte gehienak Euskadikoak (%38,3) eta Afrikakoak (%27,2) dira. Euskadiko gazte horietatik %61,4 Bizkaian jaio dira.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila eta bertan egina



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila eta bertan egina

15 eta 29 urte bitarteko gazteen atxiloketak eragin dituzten delitu nagusienak ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak dira (%33,3). Delitu honen barruan lapurketak, etxebizitzaren okupazioa, kalteak, maulak eta abar daude.

Era berean, 2008an atxiloteten arrazoen artean badira beste delitu batzuk ere. Aipagarrienak segurtasun kolektiboaren aurkakoak —suteak eragitea, droga trafikoa, drogen edo alkoholaren eraginean gidatzea eta abar— (%16,5) eta ordena publikoaren aurkakoak —agintearen aurkako atentatuak, agintearen aurreko erresistentzia eta desobedientzia, desordena publikoak eta abar— (%10,3) dira.

Erlazionaturiko datuak kontsultatzeko:

15 eta 29 urte bitarteko gazteen atxiloketei buruzko adierazle estatistikoak

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak